

BERRIGARA

5. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, Urtarrilak 18



**Kaixo lagun guztiok,
gu gara Hertzainak!**

VECTRA

Besteek desioak besterik topatzen ez dituztenean zuk errealitate finkoak aurkitzen dituzu.

BEREHALAKO ENTREGA



**TALLERES
OLA, S. L.**


Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2
Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI
GARA Irako kontzesionaria

Denda-sare Ofizialak

OPEL 
Esperientziagatik hobeak



EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO ELKARTEA

- * **EUSKARAZ IRAKURRI**
- * **EUSKAL KULTURA GOZATU**
- * **EUSKARAZ EROSI**
- *
- * **EUSKARAZ BIZI !**

DENA EGIN DAITEKE ZURE LAGUNTZAREKIN

EGIN ZAITEZ BAZKIDE !

ERROTALDE JAUREGIA

TFNOA: 76 03 97

ETXAGI

JATETXEA

Gosariak - Bazkariak
Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua

Mahasterreka 8 Tfnoa: 76 53 12 BERGARA

KIZKUR



ILEAPAINDEGIA

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

F. GABILONDO

HARATEGIA

BEREZITASUNAK BEHIKIA ETA IDIKIA

Azoka Plaza Tfnoa: 76 26 98 BERGARA

MUGICA

BURDINDEGIA

BIDEKURUTZETA 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA
SELF SERVICE-a

Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02

OILAGORRA

TABERNA

BARRENKALE 21 BERGARA

BONOFOTOA

BERRIGARA

Jardun Elkarte

1991, urtarrilak 18



M. A. Elkorobezibar



Tere Inza

110 txartel inguru jaso genituen bigarren Bonofotoko erantzunarekin, eta zozketaren orduan Tere Inzari tokatu zitzaizkion 10.000 pza.k.

Arrazoia zuen Terek, bai; San Cristobal baserria azaltzen zen argazkian.

Zorionak, beraz, eta sariak on egin daizula!

Besteok, segi jokatzen. Aukera berriak dituzue zain!

Bergarako zein kaletan aurkitu dezakegu hau?


Izena: _____ Abizena: _____ Tfinoa: _____

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

Errotalde Jauregia
20.570 Bergara

Oharra: Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo
BONOFOTOOrako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

GIARTZU



GIMNASIOA

GIARTZU GIMNASIOA

GIARTZU DERMOESTETIKA

MASAIA GELA

ESTETIKA GELA

MANTENU GIMNASIA

GOI MAILAKO KOSMETIKA

PRESIO HANDIKO SOLARIUMA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO KARATEA

E.K.I. (I.V.E.F.) rako SARRERA PRESTAKUNTZA

BONIFACIO LASKURAIN 3, BEHEAK

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezar

Erredakzioa: Jon Andueza

Maketazioa:

Eduze Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta herpidetzak:

Ignazio Irigoien. Eduze Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak:

Josu Oregi, Antonio Urzelai, Mariipi
Laskurain, Silvia Sanz, Asier
Madinabeitia, Imanol Arregi, Mikel
Alberdi eta Xabier Larrañaga

Argazki laborategia:

Ion Gurutz Landa, Armando
Gallastegi, Benito Cantero, Miren
Leturia, Kepa Retolaza, Jose Alberto
Eguren, Jose I. Millan, Jose Aguayo,
Rafael Vicente, Juan Tabares, Jose
A. Jauregi eta Kiflu

Komikia eta marrazkiak

Josu Okina

Inprimetegia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Baneketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/91

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



18 OSTIRALA

• **Zinea:** "La escalera de Jacob", 10.30etan.

• **Hertzainak:** Txibiston, 11etan hasita, zuzeneko LPa grabatzeko lehenengo emanaldia

• **Goardiako farmazia:** Ruiz, Madalenan (Arras).

19 LARUNBATA

• **Zinea:** "La escalera de Jacob", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.

• **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek iksteko aukera: Zabala/Loiarte (banakoa), Alustiza-Errasti/Arteaga-Martinikorena, eta Ansola-Unsain/Intxaurrenondo-Berna.

• **Antzerkia:** Mariaren Lagundian, *Bederen I* taldearen eskutik, *Jacques eta nagusia* komedia. 10etan.

• **Hertzainak:** Txibiston, 11etan hasita.

• **San Anton jaiak:** eguerdian, txikiteoa auzotik. 4retan Tute eta Mus Txapelketa Zubiberri sagardotegian.

Gaueko 9retan, berriz, afari herrikoia sagardotegian.

• **Elgoibar:** gaueko 10.30etan, Iparraldeko *Trukes*, *Zein ere* eta *Beltzez* musika taldeen kontzertua.

• **Goardiako farmazia:** Morales, San Andres (Arras).

20 IGANDEA

• **Zinea:** "El novato", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.

• **Futbola:** Agorrosinen, 3.45etan hasita, preferente mailako neurketa: Bergara-Antiguo.

• **Plazako dantzaldia:** 6.30etan hasita, dantzaldia *Ibaiak* taldearen eskutik.

• **San Anton jaiak:** goizeko 10.30etan San Anton ermitarra igoera. 11etan Meza Nagusia. 12etan Krossa. 12.30etan Euskal Kirolak. Eta hori bai, egunean zehar erromeria, eta salda, lukainka eta ardoa hurbiltzen diren guztientzat.

• **Goardiako farmazia:** Amezua, S. Marina (Arras).

21 ASTELEHENA

• **Zinea:** "El novato", 7.30etan.

• **Goardiako farmazia:** Español, Iturriotz (Arras).

22 ASTEARTEA

• **Bideozaleen batzarra:** Kultur Etxean, 7.30etan.

• **Goardiako farmazia:** Corcuera, Musakola (Arras).

23 ASTEAZKENA

• **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin (Arras).

24 OSTEGUNA

• **Zine Kluba:** 7.30etan, "Un puñado de polvo" filmarene emanaldia.

• **Goardiako farmazia:** Amezua, S. Marina (Arras).

Aukeran...

Antzerkia:

Larunbatean, Mariaren Lagundian, *Bederen I* taldeak *Jacques eta nagusia* obra antzeztuko du. Gaueko 10etan. 400 pzta.

Zinea:

Igandean eta astelehenean, *El Novato* filmea. Marlon Brando eta Matthew Broderick aktoreekin.

GIPUZKOA
HORTZ-KLINIKA

Dok.a Marisa Porta Peña BERGARA
Dok.a Gabriela Porta Peña Simon Arrieta 3
Dok. Pablo Jose Marmol Tfnoa: 76 38 54

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

Kiñu

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15
Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO HALTZARIAK.

BOLU 24. Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

ANDVZY

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA.

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA



EGUNKARIA eta TABERNAK

Duela hilabete inguru plazaratu zitzaigun *Euskaldunon Egunkaria*. Jaur-laritzarekin eztabaida giroan, baina azkenean bertan bildutako kazetari taldeak aurrera egitea erabaki zuen.

Nik egunero jasotzen dut, eta maila polita erakusten duela iruditzen zait. Ez dakit, ordea, euskal irakurleen artean merezi duen arrakasta lortu duen (agian bai, ez dakit).

Direnak direla, zera adierazteko idatzi ditut lerro hauek: Bergarako taberna eta kafetegi gehienetan ez dudala *Egunkaria* ikusi. DV bai, Egin ere bai, Deia edota *Correoa* jasotzen dira, baina *Euskaldunon Egunkaria* ez.

Uste dut, uste, laguntza polita izan

daitekeela proiektu horrentzat, toki publikoetan egunero ale bat egotea. Jendeak, azken finean, ezagutzen duena erosten duelako.

Ea ba. Pozez hartuko nuke euskal periodikoa taberna eta antzeko tokietan ikustea. Total, 70 pzta. besterik ez dira.

"Plaentxi"

EROSKI SINBOLIKOA

Gabonetan senarra eta biok Arraseteko *Maxi-Eroskira* joan ginen konprak egitera, eta izugarritzko ustekabea jaso genuen detaile txiki garrantzitsu batekin.

Sarreran Zorionak haundi bat ikusi bagenuen ere, gainontzeko publizitate guztia gazteleraz zegoen.

Auskalo zertan diharduten *Eroskiko* arduradunek, baina horri nik *sinbolismo hutsa* deituko nioke. Sinbolismoa, Deba bailaran bizi garenok *Zorionak* hotz bat baino gehiago merezi dugulako.


Ala ez?

N. Beitia

• ERITETXEAK	
Osasun etxea	76 10 82
Larrialdiak	76 12 94
Arrasateko ospitalea	79 53 00
• GURUTZE GORRIA	
Bergara	76 55 76
• DYA	
Antzuola	76 62 91
• ANBULANTZIAK	
Bergaran	76 13 59
Gipuzkoako anbulan.	45 87 44
• SUHILTZAILEAK	
Zubillagan	78 28 00

• POLIZIA	
Udaltzaingoa	76 14 69
Ertzaintza	76 53 40
• GARRAIOAK	
P.E.S.A.	76 16 46
Taxiak	76 19 50
• HIRUGARREN ADINA	
Mizpirualde	76 13 68
Aitonak	76 21 40
• BESTELAKO ZERBITZUAK	
Udaletxea	76 39 42
Epaitegia	76 14 72
Kiroldegia	76 56 41
Igerilekuak	76 20 51
Kultur Etxea	76 44 46
IMI	76 55 49





Gazteek ez diote eleizatik pasatzeari ukorik egiten

Joan den urtean 62 bergarar hil

44 bikote ezkondu

1990ean, berrogeitalau bikote ezkondu ziren Bergaran. Aipatu dezagun eztaiak ospatzeko orduan, hilabeterik aukeratuena azaroa izan genuela, zazpi ezkontza egin zirelarik. Balantzaren beste aldean otsaila aurkitzen dugu, hilabete hori bikote bakar batek hautatu zuen eta.

Gai tristeago bati helduaz, gogoratu joan den urtean zehar hirurogeitabi bergarar hil zirela.

Hilabeterik gogorrena, urria; hamar pertsona hil ziren orduan. Irailean, berriz, zoritxarrak familia bakar bat jo zuen. Ekin berria dugun 91an ere, dagoeneko hiru bergarar joan zaizkigu.

Gure asmoa jaiotzen berri ematea ere baten. Epaitegian adierazi digutenez, ordea, zaila da hori, ez bait da derri-gorrezkoa bertan seme alabak inskribatzea, jaio diren tokian baizik.

□ Luis M. Azkargorta

Datorren asteartean, hilak 22, Luis Mari Azkargorta preso bergararra epaituko dute. Bertara hurbildu nahi duientzat autobusa antolatuko da astearte goizaldeko 2.30etan.

□ Bideozaleen batzarra

Asteartean, 7.30etan, Kultur Etxean.

□ Novedades zinea

Laister ekingo diote Novedades zinearen berri-berri lanei. Butakak aldatu, moketa berria jarri, eta margotze lanak egingo dituzte. Guztira 353 eserleku geldituko dira (127 galduko). Zazpi milioi pezetako gastuaz, obrak martxoan hasierarako bukatu nahiko litzukete.



✓ Antzerkia institutuan

Argazkian, Azpeitia eta Azkoitia aldetik etorri den antzerki taldea daukagu. Hamabost lagun inguru dira, eta gaur eguerdian Institutuan izan ditugu, Soroaren "Au ostatuba" antzezlanaren bertsioa eskaintzen.

✓ Haurren bataioa

Joan den igandean, urteko lehenengo bataioak egin ziren Bergaran. San Pedro eleizan, argazkiko hamabi haurrak bataiatu zituzten: Aitor Zabala, Michael Sagasta, Maite Martin, Gorka Maiztegi, Xabier Baskaran, Harriet Umerez, Ana Balentziaga, Ion Ander Carrascosa, Ion Ander Kortabarría, Gorka Prat, Nerea Etxezarreta eta Aitziber Bikuña.

Santa Marinaran, berriz: Olaia Zengotitabengoa, Josu Cifuentes, Markel Rodriguez, Nagore Fernandez, Iñaki Eguren, Tania Meabe, Nuria Sainz eta Andoni Olaberria.



BOLINTXO OKINTEGIA, S. A.

ETA ORAIN EIBARREN
IBARKURUTZ 4 an.

Tfnoa: 76 16 93
BERGARA

Tfnoa: 79 63 42
ARRASATE




Barrenkale, 3. BERGARA. telf.: 943-765919

Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu.

Betiko eta oraingo sukaldaritza.

✓ **Kilometroak**

Astelehenerako plenoan, Aranzadi ikastolako Inaxio Arregi eta Javier Ugarte hurbildu ziren Udaleko Ezohizko Osoko Bilkurara, alderdi politikoetako ordezkariak egitasmoaren berri ematera. Zirkuitoari buruz jardun zuten (aldapatsua, agian), eta baita aste honetan zuzendaritza lanak egiteko sortuko den taldeari buruz. Udalak, edozertarako laguntza eskaini zuen.



Matrikula epea otsailaren 3a arte

Lanbide Hastapeneko ikastaroak

Beste urteetan bezala, Deba Garaiko Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin batera 1991an Lanbide Hastapeneko ikastaroekin jarraitzea pentsatzen du.

Ikastaroak, ikasketak jarraitu nahi ez dituzten, edo eta jarraitu ezin dituzten 16-18 urte bitarteko gazteei zuzendua daude, eta Lanbide Hastapeneko Zentruetan emango dira.

Aurten, besteak beste honako tailer hauek ipintzeko asmoa erakutsi dute: Sukaldaritza (Oñatin), Ebaketa eta Sosgintza (Arrasaten), eta Igeltseritza eta Arozgintza (bi hauek Bergaran).

Ikastaro hauen helburu nagusiak, ikasleari lanbide zehatz batetarako lehen prestakuntza ematea, eta aldi berean, lan eta gizarte mailan hezitzea, ikaslea lan munduan integratu dadin.

Ikasturtearen iraupena abendura arte luzatuko da, asteko lanordua 30ekoa izango delarik.

Informazio gehiago Lanbide Hastapeneko Tailerretan (77 14 42) edo Mankomunitateko bulegoetan (79 33 99).

✓ **Plazako dantzaldiak**

Izadi taldearekin ekin diote aurten igande arratsaldetako plazako dantzaldiei. Gaztetxoak, behintzat, jo ta sua ibili ziren aukera aprobetxatzen. Datorren igandean, *Ibaiak* taldearen txanda izango dugu.

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 11 31
BERGARA

"ORTZI"

ERRETEGIA

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

LONBIDE
OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ONENA
TINDATEGIA


BARRENKALE 29

BERGARA



✓ **Gerraren kontrako protesta**

Golko Pertsikoko gerraren kontrako Komisioa sortu berri, pasa den asteartean bertan lehenengo protesta ekintzak eraman zituzten aurrera. Irakaskuntza Ertainetako Ikastetxeek (Elementala, Institutua eta Mariaren Lagundia) greba egiteaz gain, bi manifestaldi burutu ziren Bergarako kaleetan.



✓ **Udaltzain probak**

Udaltzaingoko hiru plaza betetzeko deialdia zabaldu zenean, hamazazpi lagun aurkeztu ziren. Lauk gainditu zuten euskara azterketa. Eta azkenean, Ignazio Azkarraga arrasatearrak bakarrik eskuratu du plaza, errebisio-medikoaren zain gelditu delarik. Beste bi plazak betetzeko laister egingo da deialdi berria, lehen euskara proba gainditu zutenei hizkuntza azterketa aprobaturat emango zaielarik.

✓ **Larunbatean,
Bederen 1**

Larunbat honetan, *Bederen 1* antzerki taldea etorriko da Mariaren Lagundiaren aretora, Milan Kunderaren *Jacques eta nagusia* komedia ematera. Udala, Kultur Ekintza eta Foru Aldundia ditugu antolatzaile. Gaueko 10etan hasiko da. 400 pztaren truke, beraz, maila ederreko obra ikusteko aukera.



✓ **San Anton jaiak**

Jai giroa bizi dute San Anton auzoan. Asteazken arratsaldean ekin zioten ospakizunari, ikurriña eta txopoaren jasoerarekin. Igandera arte jarraituko du festak. Larunbatean Tute eta Mus txapelketa eta afari herrikoa, eta igandean San Anton Ermitara igoera, krossa, edota euskal kirolak gozatzeko aukera.

LARUNBATA 19, GAUEKO 10etan MARIAREN LAGUNDIA-REN ARETOAN:


BEDEREN 1 ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK
"JACQUES ETA NAGUSIA"

MILAN KUNDERAREN KOMEDIA

ANTOLATZAILEAK: BERGARAKO UDALA, KULTUR EKINTZA
eta GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA

IGANDEA 20,
ARRATSALDEKO 6. 30 etan
MARTIN DEUNAREN
ENPARANTZAN

**IBAIK TALDEAREKIN
DANTZALDIA**




BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

EUSKALTEGIAN DIHARDUTEN TALDEAK OSATZEKO DEIALDIA

IZEN EMATEA: URTARRILAREN 25era ARTE
HELBIDEA: BARRENKALE, 33 - 2.a

Tfnoa: 76 44 53



Josu eta gari, Txibiston, irrifarretsu, asteburuan giro aproposa sortuko denaren itxaropenaz.

Gari, Josu, Txanpi eta Enrike izango ditugu datorren asteburuko protagonistak Bergaran.

Eurak dira Hertzainak, eta Txibistora datoz zuzeneko diska grabatu asmoz.

Agindutakoa baino bi ordu beranduago, han hurbildu zitzaigun Josu Zabala gure galderak erantzutera.

Hotz egiten zuen Txibiston, txoko batean solasaldiari ekin genionean...

Ostiral eta larunbatean, 11etan, Txibiston

Hertzainak, bizi-bizian

- Zein idearekin irtengo zarete ostiralean eskenategira?

- Asuntoa, gutxi gora behera "Grandes éxitos" bat kaleratzea litzateke, baina kantuak errepikatu barik, grabazio berriekin. Ez gaude larregi pozik orain arte egin ditugun grabaketa askorekin, eta diska berria kantu horiek hobeto lantzeko aukera bezala planteatzen dugu, direktoak ematen duen bizitasunarekin batera.

- Diska zuek produzituko duzue. Hori urteek ematen duten autokonfiantza bezala interpretatu daiteke?

- Bai, eta interpretatu daiteke baita beste diskak ere ez dutela konfiantza gehiaguri gure diska honengan. Guk bai, itxaropen haundiak ditugu, eta zortea izan dugu, *Mecenas* antzeko bat topatu

dugulako, gudan sinistu duen laguna, Julen Arregi.

- Jende asko ari da hemen gora eta behera, lanean. Zenbat lagunek hartuko duzue parte diska honetan?

- Ez dut pentsaterik ere nahi. Jende larregik, nere gustorako. Denak izango dira beharrezkoak, funtzio ezberdinak bete behar dira, baina...

- Zergatik Txibisto?

Proba egin genuen, soinua asko gustatu zitzaigun, errezitasun haundiak eman zizkiguten, eta aurrera. Horrez gain, Bergara ere toki aproposa iruditu zitzaigun, Euskal Herriaren erdian.

- Zer eskatuko zenioke ostiral eta larunbatean hurbiltzen den jendeari?

- Publikoak beti dauka eragin handia kontzertuetan.

Jendeak ematen dio beharrezko berotasuna; eta akaso, hori eskatuko nieke, dibertitzea, ondo pasatzea eta ea berotasun hori lortzen dugun.

- Nola planteatzen duzue diska berria, etapa baten bukaera moduan?

- Baliteke hala izatea, bai. Baina bueno, horrez gain, guk diska berria kanpora proiektatzeko erabili nahi dugu. Hemen, Euskal Herriaren lortu dugun maila gaintitzea gauza zaila da, ez zaigu beste gailurrik agertzen, eta baliteke etapa berriaren gure mugak gaintitzen saiatzea, gehiago exportatzen saiatzea.

- Luzarorako daukagu Hertzainak?

- Nik uste dut baietz, badaukagula oraindik zeresanik. Aipatu bezala, kanpora begira egin nahiko genuke lan, baina ez dakit diskak

Nola aldatzen diren gauzak

Hertzainak taldearen bilakaera, aldaketaren esanplu argia dugu. Urte asko, gauza ugari pasatu dira *Pakean utzi arte* konposatu zutenetik.

Aitormena eta bertan erabiltzen diren biboliñak lekuko.

Titore pista galdu diogu, eta hain zen xinpatikoa bere saxoarekin... Zabalak profesionalismoa irabazi dutela dio, eta inozokeria galdu.

Baliteke. Baina zerbait gehio ere galdu dute, Euskal Herriko gaztedia sutan jarri zuen indarra, malaletxea.

Noski. Gauzak aldatu egiten direlako, kamarada.

txeen laguntza jasoko dugun, *akomodatu* egin direla iruditzen zait...

- Zein estilotarantz zoazte?

- Estiloari buruz, ez dakit zer esan. Beti egoten dira al-daketak, baina ez dakit norantz joko dugun, bidea urratu beharra dago oraindik.

- Pasatu al zaizue inoiz burutik dena bertanbehera uztea?

- Askotan, askotan. Baina hori normala da, halakorik gertatzen ez bada, inertziak jarraituko genuke. Nik uste talde guztiek planteatu behar dutela dena bertanbehera uztea, gutxienez urtean behin.

- Asko aldatzen al dira gauzak, *kamarada*? Zer irabazi duzue urteekin, eta zer galdu?

- Bueno, hori zuek esan beharko zenukete. Baina barrutik ikusita...galdu, nik uste inozentzia galdu dugula; orain ez gara hain inozoak!

Eta irabazi ba esperientzia, teknika...

Agian freskotasuna ere galdu dugu; dena den, beti ahalegintzen gara kontzertu guztiak desberdinak egiten, gauza berriak aportatuz.

- Kantatuko al zenukete erderaz?

Ez. Noizean behin egin izan dugu bertsioren bat, *Guantalamera* eta antzekoak, gogoia ere gelditu zaigu xelebrequeriaren bat grabatzeko...

Beste adibideren bat jar-



Txanpi, azken orduko detaile brikienaz ere zeharo arduratuta.

tzeko, Lou Reed etorri eta kanturen bat euskeraz edo erderaz abestuko balu, nik ikaragarri eskertuko nioke; zentzu berean, eta guk kanpora jo nahi dugunez, agian pentsatu beharko genuke

zerbait erderaz kantatzea...

Baina direnak direla, *Hertzainak* beti euki dugu nortasun bat, euskal nortasuna, eta horri eusten jarraituko dugu zalantza barik.

- Musikaren munduan,

ze jenderen influentzia jaso duzue urteetan zehar?

- Hasieran badakizu, Punka, Ska, Reggae...Agian gehien influentziatu gaituen taldea *The Clash* izan da...baina momentu honetan mota guztietako musika entzuten dugu. *The Clash* ere aspaldi desagertu ziren, eta guk hemen jarraitzen dugu, era guztietako Rocka maitatzen.

- Atzera begiratuta, zein izan da taldearen lanik onena?

- Nere ustez laugarren LPa izan genuen profesionalena, onena, landuena. Hori esan beharko nukeela uste dut behintzat.

- Eta bukatzeko, Josu, egia al da *Euskadin Rock & Rollak ez duela dirurik ematen*?

- Ba bai, eta ez daukat aurkako frogarik. Gustatuko litzaidake, baina ez daukat ezer poltsikoan, eta bankuan are gutxiago oraindik.

Kuatro latas eta bigarren eskuko kotxetan joaten gara, inoiz ez Mercedes Benz eta halakoetan. Ez oraingoz, behintzat.

Izkutuko Rock & Rolla

Astelehena. Txibisto. Arratsaldeko lauretatik dozena bat pertsona ari dira jo eta ke lanean. Argiak, soinu probak, TB kamarak kokatu...Rock & Rollaren aurpegi izkutua.

Beste aurpegiak, Josu, Gari, Enrike eta Txanpi. Apustu gogorra egin dute oraingoa, Julen Arregi lagunarekin batera. Eurek produzituko dute diska eta eurek biziko dute, beraz, arrisku guztia.

Idea bat darabilte buruan: kanpoan saltzea. Gauzak ondo lotu behar orduan, eta izugarritzko makinaria jarri dute martxan...Rock & Rollaren makinaria izkutua.

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

A. ZANGITU

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

Goardiako farmazien sistema berria ?



ARREGI
 ERAIKUNTZA
 MATERIALEAK
 Biltegia Tellerlan T fnoa: 76 27 93
 Labegaraleta Auzoa.

T A B E R N A
 Bereztasunak:
 Pintxoak eta
 Kafea Kremarekin
G A N B A R A
 IRALA z/g T fnoa: 76 55 75

CARASA
 Kotxe aseguruak
 Etxebizitza aseguruak...
 D. Fleming 3, Behea BERGARA
 T fnoa: 76 15 24

PUXKIN
 OINETAKOAK
 BEHERAPENAK
 D. IRALA.
 BERGARA T fnoa: 76 21 17

anezka
 Oihal eta lenzerian
 beherapenak
 ESPOLOIA 8 BERGARA
 T fnoa: 76 59 25



Paul Garitano
 20 urte

Hori ez dago ondo. Larrialdi bat daukanak eta kotxerik ez, nora jo behar du ?



Rosalia Mazkieran
 15 urte

Oso gaizki iruditzen zait. Txandak orain arte bezala jarraitu behar zuten, Arrasatekoak Arrasaten eta Bergarakoak Bergaran.




Juana Iñarra
 82 urte

Neuretako gaizki, ez zait halakorik komeni. Derrigortzen bagaituzte joan egin behar baina nahiago nuke goardiako farmaziak Bergaran zabalik aurkitzea.



Jose Andres Arieta
 46 urte.

Hori gaizki dago, herri bakoitzean gutxienez farmazia bat egon behar da zabalik. Hori ezin da egin, urgentzia bat badaukazu, Arrasateraino joan behar gaez, horrek dakarren arriskuekin!



POL-POL TABERNA

Tfoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Goiko argazkiak berrogeitamar urte pasatxo ditu. Albokoak, berriz, pare bat aste besterik ez.


Bietan protagonista berdinak azaltzen dira, ordea: Juli Madariaga eta Saturnino Agirrebeña.

Saturnino eta Juli 1941eko urtarrilaren 7an ezkondu ziren, Santa Marinako eleizan. Goiko argazkia, hain zuzen, ordukoa dugu.

Duela bi aste, urrezko eztaiak ospatu zituzten.

Santa Marinan Meza entzun eta gero, hogeitazentzako bildu ziren Lasa jatetxean bazkaltzera, eta hantxe ateratako argazkia dugu behekoa.

Berandutxo heltzen bagara ere, zorionik beroenak bikoteari!



Sekulako zalaparta sortzen da ostiral arratsaldeetan *Berri-gararen* erredakzioan, banaketa arduradunak agertzen direnean.

Hor etortzen zaizkigu dozena bat lagun inguru. Ale bakoitzari harpidedunen izenak itsatsi, eta Bergarako kaleetan zehar abiatzen dira astekaria buzoneatzera.

Oraindik sistema perfektionatu ez dugun arren, laister boro-biltzea espero dugu. Ea ba!



Zertan dihardute ba?


JOSE ANJEL AMASORRAIN

33urteko bergararra, datorren astetik aurrera Aranzadi ikastolako lehendakari berria izango dugu. Jose Anjelek, Antzuolako eskolan dihardu lanean.



AITOR ZABALETA

E.H.A. Federazioak eman berri ditu 1990 urteko sariak. Mendiko sailkapenean, eta *Scratch* modalitateari dagokionean, Aitor Zabaleta bergararrak jaso zuen Federazioaren premia.



TOPONIMOAK BILTZEN

Eli Agirre, Joxe Anjel Arriaran, Miren Azkarate, Jose R. Jauregi, Arantzazu Aranzabal eta An doni Larrañagak jaso dute Toponimia batzeko beka.



ETXE-AUNDI
 Negozio bazkariak
 Ezkontzak
 Banketeak
 Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
 OÑATI

MAHER
BILTEGIAK L.E.
 OIHAL ETXEA
 Bidekurutzeta.29 Tfnoa: 76 22 90
 BERGARA 76 26 75

URRAIS
oo KAFETEGIA
 Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
 BERGARA

Hau dok barreguria

Berriz be gasoliniak gora egin dabela. Lehen-gunian konbestaziño hau entzun neban Zapatariko gasolineran. Betiko listopasaua hasi zan betiko zebrekerixia esaten:

- Ba, preziaua jaso dabela? neri igual jostak, beti mila pezetakua botatzen jotsat eta...

Orduan aldamenian zeuan batek kontestau zotsan:

- Neri be igual jostak ba. Nik plomoduna erosten juat eta gero plomua txatareruai saltzen jotsat.

Lehenguan kristonak egin najittuan motozerria arrankau ezindda. Badakik, egin dittuan izotzekin jota agarrotauta jeuan, eta egiñalak egin arren ezin indarririk emon hi.

- Tontua halakua, laster emongo najotsan nik.

-Zela?

- Aldapan behera jarritta.

Bazebilen Plaentziako abadia pasiuhan liburu haundixa leittuaz eta han ikusten dau Fernando ibai baztarrian kafniakin peskan. Ezin ba ixilik egon eta ondora ailegau zanian esaten dotsa.

- Ze Fernando, pikatzen dabe ero...?



Fernandok kasoik pez.

- Ze, asko harrapau dogu ero...?

Fernandok begixak errekatik kendu barik:

- Jangoikuak beste.

- Bat orduan -abadiak-.

- Ez, bapez.

Angiolilloren urkamendia



Esan bezala, 1897ko abuztuaren 8an atxilotu zuten Angiolillo, Canovas hil eta berehala. Bergarako espetxera ekarri zuten.

Garai hartan tankera honetako epaiketak berehala egiten ziren. Abuztuaren 15ean bildu zen Bergaran Guda-Kontseilua. Fiskalak heriotz zigorra eskatu zuen, premeditazio eta alebosiazko hilketatzat joz eta ez zela zirkunstantzia aringarririk argudiatuz.

Defendatzaileak benebolentzia eskatu zuen, Angiolillo pertsona heldugabea eta zentzun gutxikoa zela arrazoituz. Anarkistak hitza hartuz -gazteleraz, italiar azentuaz- bere ekintza esplikatu nahi izan zuen: "Ez dut ekintza hau Canovasi gorroto pertsonala niolako egin, ditudan idealengatik baizik. Badakit hil behar naizela. Lasai nago, bete dut eta nire betebeharra: bengatu ditut nire Bartzelonako anaiak". Gero bere ideia politikoak azaldu nahi izan zituen baina epai buruak hitza kendu zion. Eskuak eta hankak lotu, sonbreroa jantzi eta gartzelara eraman zuten berriro.

Abuztuaren 20ko goizeko hamaikak dira. Gartzelako patio aurreko kalean, erreja atzean, milaka pertsona tiraka eta bultzaka dabilta urkamendia ikusteko lekua hartu nahian. Jendea arbola puntetan, jendea leihoetan, jendea teilatuetan. Talaudi ganean heriotz-makina prest: "Garrote vil" delakoa. Angiolillok laguntzarik gabe igotzen ditu eskilarak eta ohizko lasaitasunez jendearengana zuzenduz, "Germinal" oihukatzen du. Gero urkabeen eseritzen da. Borreroak bere langintza burutzen du tornua anarkistaren lepo bueltan estutuz.

Bergarako kanposantu ondoan hilobiratu zuten, fedega-beak eta horrelakoak lurperatu ohi diren lur-sailean.

Juan Martín Elexpuru

AGOITZ

TAPIZDENDA

San Lorenzo 25 Tfnoa: 76 11 58
BERGARA



ANTXONI

JATETXEA

Fraiskozuri 7
Tfnoa: 76.20.40
BERGARA

J.M. IRIZAR LEANIZBARRUTIA

URDAILEKO MEDIKUA

ETA

HAGIN-KLINIKA

MATXIATEGI 18, BEHEA EZK..

Tfnoa: 76 56 57

BERGARA

□ Igartua bigarren

Asturias aldeko Lugones-en jokatutako Espainiako Ziklo-Kross Txapelketan, Iñigo Igartuak bigarren postua eskuratu zuen afizionatu mailan. Txapela Benito Duran arabarrarentzat izan zen, bergararrari 31 segunduko alde atera eta gero.

□ Kluben batzarra

Ostegunean, hilak 24, 6.30etan bilduko dira Kultur Etxean Bergarako Kirol Elkarte ezberdinetako ordezkariak. Besteak beste, Kirol Kontseilua, dirulaguntzak edota aurtengo iharduerei buruz arituko dira.

□ Elgoibarko Krossa

Inguruko hiru ordezkari izan genituen igandean Elgoibarko Nazioarteko Krossean. Antzuolatik Antonio Merino (25. postuan) eta Xabier Azkarate (40. postuan). Bergaratik, berriz, Luis Fernandez joan zen (47. sartu zen helmugan).

Akonkagua gailurra lortu zuen abenduaren 28an

Jon Lasa, gora ta gora

Jon Lasak 33 urte ditu. UNEDeko bule-goetan egiten du lan. Eta bere zaletasunak badu izenik: Mendia.

"Hamar urtekin hasi nintzen Pol-Polekoekin irteerak egiten. Gero eskalada apur bat... eta azken urteotan mailak gainditzen dihardut, geroz eta gorago".

Gabonetan, hain zuzen, Akonkagua aldean ibili da. *"Aspaldiko ametsa. Aurten joateko aukerak ikusi nituen, Xabier Erro ezagunarekin harremanetan jarri, eta hor abiatu ginen hamabost mendizale abenduaren 14an. Aurrez ez nuen inoloz ezagutzen, baina berehala sortu zen giro aparta".*

Eibar, Elgoibar, Donostia



eta Nafarroako jendeak osatu du espedizioa. Taldeak, dena den, ez zuen inolako laguntzarik jaso. *"Bakoitzak ordaindu ditu bere gastuak".*

Eguraldia lagun, 28an bost lagunek gailurra garaitzeko lehenengo saioa egin zuten, tartean Jon bera; eta baita helburua lortu ere. *"Nahiko fresko ailegatu nintzen. Sentsazio polita da, zerua oso berezia... baina gehienbat behean ohartzen zara eginda-koaz, jeisterakoan".*

Zazpi mila metro eta gero, zer? *"Deskantsatu, inguruko mendietan ibili. Denborarekin, seguruenik zortzi milakoren bat egiteko buruhausteari ekingo diot..."*

Mendigoizaletasunari buruz ere jardun dugu. *"Gogor gabilitza. Pentsa, Akonkagua inguruan ere Bergarako Amaia Aranzabalekin egin genuen topo".*

Igerilariak fin

Albiste pozgarriak ekarri zituzten Bergarako igerilariak, Zarautzen egindako Gipuzkoako Txapelketatik bueltan.

Gure Taldeak urrezko 9 domina, zilarrezko 12 eta brontzezko 7 lortu zituen.

Izenen batzuk aipatzekotan, gogoratu Iñigo Gallastegik urrezko bi domina eskuratu zituela, Unai Alberdik bat, Gorka Gonzalezek beste bat, Nagore Irazolak bi eta Nora Olabidek beste hiru irabazi.

Taldeakako Txapelketa absolutuan, bestalde, bergararrak 5. izan genituen.



IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55

ELKAR

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA



O

rain arteko erretratuak gerrau-
rrekoak izan dira eta gazteenek,
behintzat, gutxitan ezagutuko
zituzten bertan agertzen zirenak.
Oraingo honetan, oraintsuagoko
argazki bat aukeratu dugu, 22tik

24 urtera bitartekoei bereziki eskainia. Badakizue, hatzamarra
argazkikoaren paper gainean jarri eta hasi: "Hemen neu, hau
Eli, hau Felipe, hau andereño Arantzazu, hau..."

Erretratua 1974ean aterata dago San Martzialen eta bertan
agertzen direnak Aranzadi Ikastolako O.H.O.ko lehen kur-

tsoetako haurrak dira.

Garai hartan ikastola zer zen antz bat emateko, esan
dezagun 16-17ren bat irakasle zituela eta 550en bat haur.
Gaur egunean 55 irakasle dira zuzendari, sikologo, etab.ak
kontatu gabe.

Artean, mailarik altueneko taldea 7. kurtsokoa zen, eta
bigarren etapan gai batzuk erdaraz ematen ziren.

A, eta argazkian daudenei buruz, ba al dakizue zenbat
diren injineruak, zenbat eskola-maisuak, zenbat...? Ea kon-
tatzen dituzuen.

Estepan Plazaola
Argazkia: Roman

Nahikari

Mahasterreka. 20
Teléfono, 78 57 71
20570 BERGARA



Rairabal
Gozotegia

ARTEKALE 9, Tfnoa: 76 11 83
BIDEKURUTZETA 20/22, Tfnoa: 76 12 19



ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnora.
- Pisu salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisu behar dut alkillerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Konpondutako pisu txiki bat salgai, oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfnoa: 761079.

- Pisu erdiamueblatua alkilatzen da. 762793, 8etatik 10etara.
- Umerik gabeko andragizonek pisu bat behar dute alkilerrean, lehenbailehen. 781704, edo 941-209883.
- Baserria salgai Bergararik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.
- Pisu salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Pisu alkilatzen da. Tfnoa: 763797. 2etatik 4retara eta 8etatik 10etara.
- Pisu salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Pisu alokatzen da Toki-Ederren. Gauzez deitu 764988 Tfno.ra.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 763157.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Alemaneko klase partikularrak. 765697.
- Marrazki klaseak ematen dira FP, BUP, REM eta Ingenerutzako 1. mailakoentzat. 761330.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astialdian. 762858
- 20,50 m²ko garajea alkilatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003
- 55 m²ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

Hildakoak

Felix Aranzabal Guridi
Urtarrilaren 3an. 79 urte

F. Javier Madinabeitia Irizar
Urtarrilaren 3an. 61 urte

Aurelia Garitano Iparragirre
Antzuolan. Urtarrilaren 12an. 88 urte

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97



DIETETIKA ETANUTRIZIO ZENTRU MEDIKUA

Gizentasuna, argaltasuna, diabetea, hipertentsioa, kolesterola, azido urikoa, haurdunaldiak, umeak, kirolariak, eta abarrentzat tratamendu dietetikoa.

AURREZ ESKATU BEHAR DA KONTSULTA ORDUA.

Espoloia 4, 4. B

BERGARA

Tfnoa: 76 51 70



Alihop!

LANBIDE HASTAPENA

ZER:

LANBIDE
HASTAPENERAKO
IKASTAROAK

NORENTZAT:

16-18 URTE BITARTEKO
IKASKETAK JARRAITU
NAHI EZ DITUZTEN
GAZTEEI ZUZENDUA

NON:

LANBIDE
HASTAPENERAKO
ZENTRUETAN

TAILERRAK: SUKALDARITZA

IGELTSERITZA
EBAKETA ETA SOSGINTZA
ARozGINTZA

OÑATIn

BERGARAn
ARRASATEn
BERGARAn



MATRIKULA EPEA: 1991KO OTSAILAREN 3-RARTE.

MATRIKULA TOKIA: LANBIDE HASTAPENERAKO TAILERRETAN TFNOA: 79 33 99
DEBA GARAICO MANKOMUNITATEAN TFNOA: 79 33 99
DAGOKION UDALETXEAN.



DEBA GARAICO UDAL-ELKARTEA